



Jone Miren Hernandez- Antropologian doktorea eta EHUko irakaslea
**BAINA GU ERE GAZTEAK IZAN GINEN! GAZTE EUSKALDUNA IZATEAREN
ESANAHIA ATZO ETA GAUR**

(Soziolinguistika Klusterraren laburpena)

Hitzaldia jardunaldien izenburuko hiru kontzeptuen arabera egituratu zen:

1- GAZTEAK

- “Gazte” kontzeptua XVIII. Mendean garatutakoa da. Historikoki hiru narratibaren bidez eraiki izan da ([Carles Feixa](#) antropologoaren erreferentzia):
 - TARZAN eredua: Rousseau-ren “optimismo antropologikoa”. Gizakia berez ona da, gizarteak okertzen du bere bidetik. Gazteak formatu eta landu behar dira, haurtzarotik norabide onean datozenez ez daitezen okertu. Ahozkotasunetik idazketera transizioa gaztarotik helduarora transizioaren adierazle bat da.
 - PETER PAN eredua: Modernoa. Kapitalismoarekin batera sortua. Gaur egun indarrean neurri handi batean. Gazteak gizartearen ikur. “Beti gazte” filosofia.
 - BLADE RUNNER eredua: XX. mendean sortu zen eta aurrera doa. XXI. mendean nagusituko omen da. Osaera hibridoa: birtuala-presentziala; lana-aisia; adimen artifiziala- gizarte ekimena; helduei errespetua- ihes egiteko gogoia;... Memoriarik ez dute eta horrek sortzen die noraeza (eta akatsak errepikatzea). Aldaketarako prest daude, baina memoriarik e izatea oztopo. “Gaztaroa ez da zeharkatzen den errito bat; impassaren erritualizazioa da.”
- Negu Gorriak omen da Blade Runner ereduaren adibide euskaldun bat. Gazte euskaldun bezala munduaren aurrean kokatu ziren lehenak izan ziren hizlariaren ustez. Rap estiloa eta estetikarekin agertzen ziren (beraz mundu mailako joerei jarraituz), baina “[euskalduna naiz eta harro nago](#)” aldarrikatzen zuten (euren berezitasuna nabarmenduz). Jarrera hori hausnarketa baten eta erabaki arrazional baten ondorio zela aipatu zuen





2- AISIALDIA

- [Gazteen Aisialdiari buruz ikerketa bat egin](#) zuen duela urte batzuk (Kontxesi Berrio-Otxoarekin eta Zesar Martinezekin). Han, espazioaren araberako azterketa bat eginda, 4 aisialdi mota bereiztu zituzten:
 - Gune konpartituak: Helduekin elkarbanatzen guneetako aisialdia.
 - Gune Monitorizatuak: Aisialdi antolatua: gidatua, begiraleekin,..
 - Gune Birziklatuak: Gazteek “bere” egindako espazio publikoak. (Gazteak biltzen diren plaza edo parkeak adb.)
 - Berezko guneak: Gazte-tabernak, lonjak, gaztetxeak,...
- Beren identitatearen osaketan, gazteentzat *Berezko* guneetako aisialdi jarduerak dute bereziki interesa (asteburua, gaua...). Esan daiteke hauetan gazteek beren “gizarte paraleloa” sortzen dutela.
- Aisialdiaren gune hauen “privatizazio” bat eman da azken urteotan: horren adibide, gazteen lokal pribatuak edo lonjak. (Helduen artean ere sumatutako joera da).
- “Gelaren kultura” bat indartu da: teknologi berriei esker, bere gelatik atera gabe egunak eta asteak eman ditzakeen gaztea ([Hikikomori](#))
- Heldu arora pasatzeko “errito” batzuk galdu dira (adib: soldaduska). Beste batzuk ari dira forma hartzen, baina askoz modu lausoagoan. Transizio horren gaur egungo adibidea izan daiteke norbere gelaren dekorazioa aldatzea, umetako jostailuak, panpinak eta abar baztertzea.

3- EUSKARA

- Aisialdian “erabilera” mailan eragiteko egitasmoak planteatzen direnean *berezko* aisialdi horretan eragitea oso zaila da. Errazagoa da *monitorizatuan*.
- Gazteekin lotutako kezkak sarri gizarte osoarenak diren kezka orokorren isla edo metafora dira. Askotan, gazteen inguruan ditugun galderak helduenak dira, ez daude gazteen kezken artean.
- Noves de Sociolinguistica. [Joan Pujolar-ek koordinatutako ale monografikoa](#). Pujolarrek bertan esaten duen moduan, askotan galdetzen da “Zergatik ez dute gazteek katalanez egiten?”. Hainbat zantzu ditugu pentsatzeko galdera hori gaizki planteatua dagoela, edota beste galdera batzuekin agian emaitza interesgarriagoak lor ditzakegula gertatzen ari denari buruz.
- Zenbaitetan gazteek helduek konpondu gabeko arazoak transmisioaz jasotzen dituzte.





- Mugitzen gara marko kontzeptual batean non bereizten dugun Motibazioa, Ezagutza eta Erabilera, eta gaur egun ez da egokia. Ikuspegia zabaldu behar genuke zentzu honetan. Txepetx-en teoriaren oinarritzko hiru kontzeptuak berritzeko proposamena egin zuen Jone Mirenek:
 - ERABILERA → PRAKTIKAK
Erabilera hitza hitz egitearekin lotua dagoelakoan, *Praktika* proposatzen du hizkuntza batean iragarki bat irakurtzea edo euskarazko elkarrizketa batean hitzun batek hitzun-pasibo bezala jokatzeko badu, praktika linguistiko bat egiten ari dela jaso nahian.
 - EZAGUTZA → GAITASUNAK
Ezagutza kontzeptuak funtzionatzen du EZAGUTZEN DU/ EZ DU EZAGUTZEN eskeman. Hiztun bakoitza hizkuntza batean zenbait funtzio ongi betetzeko gai da, beste batzuk erdizka bete ditzake eta beste ez ditzakeen batzuk ere baditu. Horien bilduma lirarteke bere gaitasunak (edo konpetentziak edo trebetasunak).
 - MOTIBAZIOA → EMOZIOAK
Motibazioa mugatzaileegia da eta zentzu batean uler daiteke (Motibazio handia, txikia, honek hark baino motibazio gehiago,...) Hizkuntzarekiko emozioak eskala bakar batean bildu ezin diren sentimenduen multzoa dira.
- Haur eta gazte asko daude euskara eskola bidez (+ beste ingurune batzuetan) urtetan jaso dutenak. Erabilera neurtzen dugu 0 – 100 eskalan eta askotan emaitza da “ez dutela erabiltzen”. Baina ZER egiten dute gazteek dakiten euskara horrekin. Gauza batzuk egiten dituzte, ziur. Hori da interesatzen zaiguna, jakitea zer egiten duten, zertarako erabiltzen duten, nola bizi duten...
 - Euskararekin lotutako hainbat gai emozionatzen ditu gazteak, baina guk sarri ez dugu ikusten. “Betaurreko” berriak behar ditugu bizipen horiek ikusteko.
- Gizarte mailan aldaketa handiak ematen ari dira, eta horiek kontuan hartu behar dira orain arte baino gehiago, bereziki gazteen ikerketak egiteko garaian. Soziolinguistikak gizarte aldaketa horiek kontuan hartuta lan egin behar du.
- Euskararen erabileraren gaian, inpresioa da gazteek “presioa” bizi dutela, presio handia.
- Kapitalismoak gazteak bihurtu ditu eredu eta ipar, eta beraien bitartez sartzen ditu merkatura berrikuntza asko eta asko. “Gazte izatea” gizarte honen ikur denez, beste adin taldeak ere jabetzen dira gazteen berrikuntza horietaz. Baina, aldi berean, gazteek behar dute desberdintzeko modu bat gazte izateko; eta ondorioz, segitzen dute desberdintzeko balio dieten elementuak bilatzen eta sortzen.